

Etorkizuna aurreikusten 99

Euskal Herriko
Gaztetxoak eta Euskara



Sustengatzaileak

et soutenu par :



AURKIBIDEA

Etorkizuna aurreikusten 99	2. orrialdea
Ikerlanaren aurkezpena	3. orrialdea
Inkesta berri bat	
Azterlan honen metodologia	
Inkestaren ezaugarriak	
1. Hizkuntza transmisioa	5. orrialdea
Gaztetxoek lehen hizkuntza	
Gaztetxoek iritzia euskararen transmisioaz	
2. Hizkuntza gaitasuna	7. orrialdea
Hiztunen tipologia	
Hiztunen tipologiaren bilakaera	
Euskararen balio komunikatiboa	
3. Euskararen erabilera	10. orrialdea
Pentsatzeko hizkuntza	
Etxeko hizkuntza	
Lagunarteko hizkuntza	
4. Euskarari buruzko iritziak	14. orrialdea
Inguruko pertsonen interesa	
Gaztetxoek euskarari buruzko interesa	
Euskarari eratziki ezaugarriak	
Euskararen erabilerari buruzko iritziak	
Hizkuntza egoerak	
Euskararen etorkizuna	
5. Hizkuntzen hautapena	22. orrialdea
Hizkuntza hautatuenak	
Hautapena, gaitasuna eta jarrerak	
6. Euskarari buruzko jarrerak	24. orrialdea
Metodologia	
Idazlanetan aipatzen diren gaiak	
Nortasun jarrerak eta onura jarrerak	
Ondorioak	27. orrialdea
Euskararen berreskurapena	
Euskal hiztunen komunitatea	
Euskalgintzaren bizi-nahia	
Bibliografia	30. orrialdea

"ETORKIZUNA AURREIKUSTEN 99" : EUSKAL HERRIKO GAZTETXOAK ETA EUSKARA IPARRALDEKO EGOERA

Zuzendariak : Iñaki Martinez de Luna eta Kontxesi Berrio-Otxoa.

Ikerkideak : Erramun Baxok, José Manuel Legarra, Itziar Garaiburu, Jone Hernandez, Nekane Larrañaga, Pantxo Etxegoin eta Terexa Lekunberri.

Emaiza guzien argitalpena

"Etorkizuna aurreikusten 99" deitu inkesta, 1998 - 1999 ikasturtean egin zen Euskal Herri osoko ikastetxe batzutan, 13 - 14 urteko gaztetxoek euskaltasuna neurtu nahiz. Emaizak komentatu eta zabaldu dira euskarazko 290 orrialdeko liburu batean. Dokumentu hau Euskal kultur erakundean eskura daiteke.

Argitaldia : 2000ko abendua

Argitaratzailea : Iñaki Martinez de Luna

Argazkiak : Lasarte-Oriako Txintxarri aldizkaria

Inprimaketa : Estudios Graficos ZURE

ISBN : 84-607-1693-7. L.G. : BI-78-01.

Ipar Euskal Herriko laburpena

Euskarazko edizio osoa erreferentzia gisa hartuz eta argitaratzailearen baimenarekin, Euskal kultur erakundeak laburpen bat egin du, euskaraz eta frantsesez. Laburpen hau baliagarri izanen da jatorrizko idazkiaren irakurketa laguntzeko eta berehalako ondorio pedagogikoak ateratzeko.

Iparaldeko inkestaren arduraduna : Terexa Lekunberri

Inkestatzailea : Mikel Funosas.

Inkestatuak : 23 ikastetxetako 528 gaztetxo.

Laburpenaren arduraduna : Pantxika Maitia.

Laguntzailea : Erramun Baxok.

Eskerrak

Euskal kultur erakundeak eskerrak adierazten dizkiete ikerketa honetan parte hartu duten ikastetxeetako zuzendariari, irakasleei eta ikasleei. Eskerrak ere Bordeleko errektoreari, Paueko inspektore nagusiari eta tokiko inspektoreari beren harrera onarentzat. Oron lankidetzarekin, gaur egun badugu gaztetxoek euskal nor-tasunaren argazki zehatza.

Oharrak

Laburpen honetako atal buruen ondorengo orrialde zenbaki bat agertzen da. Euskarazko edizio osoaren erreferentzia da, zehaztasun gehiago nahi duten irakurleentzat.

Taulen zenbakiak jatorrizko liburuarenak dira.

3. IKERLANAREN AURKEZPENEA

Inkesta berri bat (3. orrialdea)

"Etorkizuna Aurreikusten 99 : Euskal Herriko gaztetxoak eta euskara" ikerlan hau 1998-1999 urteetan egina izan da, 13 - 14 urtetako ikasleen artean eta hiru lurraldeetako ikastetxeetan, Euskal Autonomia Erkidegoan (E.A.E.), Nafarroako Foru Erkidegoan (Nafarroa) eta Ipar Euskal Herrian (Iparraldea). Parte hartu duten erakundeak hauek izan dira : Euskal Herriko Unibertsitateko (E.H.U.) Soziologia 2. saila, Nafarroako Unibertsitate Publikoa (N.U.P.) eta Euskal Kultur Erakundea (E.K.E.).

Lehen ikerlana 1993an egin zuten E.H.U.ko irakasleek gaztetxoen artean, Michiganeko Unibertsitatean erabiltzen duten "Monitoring the Future" diseinua hemengo gizarteari egokituz. Inkesta hau E.A.E.ra mugatu zen. 1999ko lana, 1993koaren jarraipena da, baina Euskal Herri osora zabalduz.

Bestalde, "Euskararen Jarraipena I eta II" soziolinguistikazko inkestak egin ziren 1991an eta 1996an euskararen egoera aztertzeko Euskal Herri osoan, 16 urtez goitiko herritarren artean. Erakunde eramaileak : Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailordetza, Nafarroako Gobernuko Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusia eta Euskal Kultur Erakundea. Gaurko inkesta honek 1993koaren segida hartzen du. Nabari da lau inkestak bat bestearen osagarri direla, euskararen bilakaera aztertzeko eta herri hizkuntzaren etorkizuna aitzinetik ikusteko.

Inkesta honen metodologia

Abiapunduko hipotesia hau da : "gaztetxoen hizkuntza identitatea ezagutzeak, etorkizunean izango dugun gizartearen hizkuntza kezka eta nahiak ulertzen lagunduko duela". Alabaina gaztetxoen adina haurtzaroaren eta heldutasunaren arteko etapa da. Alde batetik gaztetxoa familiari eta hezkuntza sistemari lotua da. Baina, bestalde, bere mundua eraikitzen ari da helduen balore sistema jorratuz, lagunarte multzoan ibiliz eta mundualizazio birtual bat asmatuz, bereziki telebistaren eta interneten bidez.

Gainera, adin horretako beste ezaugarria da bat-bateko zintzotasuna beren iritzia emaitako inguruan ikusten dutenari buruz : familiako jarrerak, ikastetxeko jokamoldeak, lagunarteko bizitza. Denbora berean diskurtso kritikoa eta eraikitzailea adierazten dute. Beraz gaztetxoen errealitatera hurbiltzea etorkizuna aurreikusteko bideak irekitzea dela erran daiteke.

Ezaugarri hauek kontuan hartuz, bi ikerbide har daitezke : inkesta kalitatiboa eta inkesta kantitatiboa. Inkesta kalitatiboan eztabaida taldeetan bildu diskurtsoa aztertzen da, gaztetxoen irudikapenak agertzeko hizkuntzaz, herriaz, etorkizunaz. Metodo hau hegoaldean erabili da 6 eztabaida talderen bidez. Iparraldean ez da inkesta kalitatiborik egin ahal izan azken momentuko zailtasun batzuenengatik.

Inkesta kantitatiboa aldiz bai hegoaldean bai iparraldean eramana izan da.

Inkesta kantitatiboan galde hetsiak egiten dira, gehienetan aitzinetik erantzuteko moldea finkatuz, gero estatistikaren bidez ondorioak neurtzeko. Noizean behin galdea irekitzen da, ikasleari bere erantzuna justifikatzeko eskatzen zaiolarik. Adibidetzat har dezagun 57. galdea : Idatz ezazu lerro hauetan, ondoko galdera hauen inguruan bururatzen zaizun guztia : "Euskara zertarako ? Eta frantsesa zertarako" ? Idazkiaren eduki-azterketak emaitza kalitatibo zerbait ekar dezake.

Inkestaren ezaugarriak

Zenbakieri begira, 1678 inkesta egin dira E.A.E.n, 940 Nafarroan eta 528 Iparraldean, orotara 3146. Galdesortak gelaz gela banatu dira laginaren bidez hautatu ikastetxeetan. Erantzunak bildu dira denak batean informatikaz tratatzeko. Iparraldean, laugarreneko klasean egin dira inkestak, 23 ikastetxetan. Huna ikastetxe horien zerrenda.

Kolegio publikoak (11) : Marracq Baionan, Jean Rostand Miarritzen, Henri Barbusse Bokalen, Chantaco eta Maurice Ravel Donibane-Lohizunen, Irandatz Hendaian, Elhuyar Hazparnen, Errobi Kanbon, Léon-Bérard Donapaleun, La Citadelle Donibane-Garazin, Argia Maulen.

Kolegio pribatuak (11) : Saint-Amand eta Saint-Joseph Baionan, Sainte-Marie eta Saint-Thomas Donibane-Lohizunen, Sacré-Cœur Hendaian, Ursuya Hazparnen, Saint-Michel Kanbon, Saint-François-Xavier Uztaritzen, Etchecopar Donapaleun, Bil-Etxea Baigorriin, Mayorga Donibane-Garazin.

Seaskaren ikastegia (1) : "Xalbador" Kanbon.

Laburpen honek sei atal ditu :

1. hizkuntza transmisioa,
2. hizkuntza gaitasuna,
3. euskararen erabilera,
4. euskarari buruzko iritziak,
5. hizkuntza hautapenak,
6. euskarari buruzko jarrerak.

Jatorrizko liburuak beste bi gogoeta nagusi dakartza :

- jarrerak eta jokabideak euskararen etorkizunari begira,
- gaztetxoek hizkuntza ibilbideak eta nondik norakoak.

Liburutto honen helburua da iparraldeko emaitza nagusiak aurkeztea, beharrez konparaketa batzuk eginenez hegoaldean gertatzen denarekin. Holaxet irakasleek eta ikasleek argibide baliagarriak ukanen dituzte euskararen egoeraz eta bereziki gaztetxoek ikusmoldeaz. Haatik, gogoeta sakonago bat egin nahi duenak, jatorrizko liburuak irakurri behar du.

I. HIZKUNTZA TRANSMISIOA

Gaztetxoek lehen hizkuntza (99)

Euskarari buruzko diagnostika egin nahi denean, garrantzizkoa da ikustea zein diren gaztetxoek lehen hizkuntzak. Alabaina, ama hizkuntza da nortasuna eraiki duena eta, ondorioz, gazteak hizkuntza horri buruz dauka etengabeko atxikimendua eta erabiltzeko erraztasuna.

Iparraldeko gaztetxoetan % 7 sortzez euskaldunak soilik dira. Beste % 10 haurtzarotik elebidunak dira, euskara eta frantsesa denbora berean ikasi dutelakotz. Gehiengo handia, % 83, frantsesduna da.

Hegoaldearekin konparatuz, Nafarroa berdintsu dabil iparraldearekin, haurren %14 euskaldun dira (elebatar edo gaztelaniarekin) eta % 86 sortzez erdaldun. Autonomia Erkidegoan da egoera hoberena euskararentzat, % 35 euskaldun, gehienak halere (% 65) erdaldunak direlarik.

1.1 taula : Gaztetxoek lehen hizkuntza

Lehen hizkuntza	Iparraldea	Nafarroa	E.A.E.	EUSKAL HERRIA
Euskara	7	6	20	16
Biak	10	8	15	13
Erdara	83	86	65	71
OROTARA	100	100	100	100

Gaztetxoek lehen hizkuntza eta gurasoen hizkuntza gaitasuna (100)

Gaztetxoek galdegin zaie gurasoek euskara dakitenetz. Hona galdea eta hautatu behar ziren erantzunak.

"Aita-amek badakite euskaraz mintzatzen ?

Bai, biak badakite.

Amak badaki, aitak ez.

Aitak badaki, amak ez.

Ez dakite, ez bata ez besteak".

Taula honek erakusten digu kasu horietan zein den haurren lehen hizkuntza.

1.2 taula : Hizkuntza transmisioa, gurasoen hizkuntzaren arabera, Iparraldean

Haurren hizkuntza	Biek euskara	Batek euskara	Biek erdara
Euskara	31	5	0
Biak	36	16	1
Frantsesa	33	79	99
OROTARA	100	100	100

Iparraldean, bi gurasoak euskaldunak direlarik, haurren % 67 euskaldunak dira (haurtan % 31 elebatar eta % 36 elebidun), heren batentzat (% 33) euskara galtze bat delarik. Guraso bat euskalduna delarik, haurren % 21k euskara dakite, gehiengo erdalduna delarik (% 79). Aita eta ama erdaldunak direlarik, kasik haur guztiak erdaldunak dira (% 99). Halere gutiengo tipik batek euskara daki (% 1).

Nafarroan egoera berdintsua da. Aitak eta amak euskara dakitelarik haurren % 73k euskara dute lehen hizkuntza, batzuetan gaztelaniarekin batean (% 24). Horiek hola, haurren % 27k gaztelania dute lehen hizkuntza. Aita edo ama euskalduna delarik, haurren % 29 euskaldunak dira. Halere, biak erdaldunak direlarik, % 3k euskara ikasi dute gaztelaniarekin batera.

Autonomia Erkidegoan, euskara hobeki atxikitzen da familian. Bi gurasoak euskaldunak direlarik, haurretan % 87k euskara badaki. Aitak edo amak bakarrik dakielarik, haurren % 43k euskara du lehen hizkuntza, gehienetan gaztelaniarekin batera (% 30). Bat ez bestea ez delarik euskaldun, halere haurren % 7k euskara daki.

Oro har, iparraldean bi gurasoak euskaldunak izanikan ere, haurrak gehienetan elebidunak dira. Alderantziz, Hegoaldean eta kasu berean, haur gehiago bada euskaldun elebakar direnak : E.A.E.n, % 67 ; Nafarroan, % 49. Hiru lurraldeetan, ama delarik euskaldun bakarra euskara hobeki transmititzen da (aita delarik baino).

Gaztetxoen iritziak euskararen transmisioaz (107)

Euskaraz ongi hitz egiteko gai diren gaztetxoei galde hipotetiko bat egin zaie : "Hemendik urte batzuetara, seme-alabarik bazenu, heiekin euskaraz hitz mintzatuko zara etxean ? Inkestaturen adina dela-ta, aita edo ama izaitea gertakari oso urruna zaie. Halere, aldagai hau interesgarria izan daiteke gaztetxoek iritzia ikusteko beren geroko hizkuntza transmisioaz, nolazpait euskara jarraitzeko gogoia adierazten baitu.

1.14 taula : Gaztetxoek iritziak beren geroko euskararen transmisioaz, lurraldeka

Jarraitzeko xedea	Iparraldea	Nafarroa	E.A.E.	EUSKAL HERRIA
Bai	87	65	74	74
Ez	13	35	26	26
OROTARA	100	100	100	100

Iparraldeko gaztetxo euskaldunetan da agertzen euskara etxean erabiltzeko gogo hobereana (% 87), gero Autonomia Erkidegoan (% 74) eta Nafarroan (% 65). Euskara gutienik transmititzen den lurraldean da transmititzeko xederik bizkorrena. Ikus dezagun "bai" edo "ez" erantzunak nola banatzen diren gaztetxo euskaldunen lehen hizkuntzaren arabera eta Euskal Herri osoan.

1.15 taula : Gaztetxoek iritziak beren geroko euskararen transmisioaz

Lehen hizkuntza delarik	Euskara	Biak	Erdara
Euskaraz jarraitzeko xedea :			
Bai	95	84	69
Ez	5	16	31
OROTARA	100	100	100

Lehen hizkuntza edozein izanik ere, euskaraz ongi hitz egiten duten gaztetxo gehienek euskara etxean erabiltzeko xedea dute. Bainan iritzi hau askoz hedatuago da lehen hizkuntza euskara bakarrik dutenen artean (% 95), ezinez eta haurtzarotik bi hizkuntzetan (% 84) edo erdaraz (% 69) mintzatzen direnetan. Beraz, beren familian euskara erabili duten neurrian, berek ere gero erabiltzeko xedea dute. Euskararen etorkizunari begira, familiako hizkuntza jokabideek garrantzi handia dute.

2. HIZKUNTZA GAITASUNA

Hiztunen tipologia (109)

Euskaldun elebakarrak : euskaraz ongi egiteko gai direnak eta erdaraz hitz bakar batzu dazkitenak.

Elebidunak : euskaraz eta frantsesez edo gaztelaniaz ongi hitzegiteko gai direnak.

- *Euskal elebidunak* : euskaraz ongi eta frantsesez edo gaztelaniaz aski ongi mintzatzen direnak

- *Elebidun orekatuak* : bi hizkuntzetan berdin ongi ari direnak.

- *Erdal elebidunak* : euskaraz aski ongi, baina frantsesez edo gaztelaniaz hobeki ari direnak.

Elebidun hartzaileak : euskara ulertzen dutenak baina mintzatzeko gai ez direnak.

Erdaldunak : frantsesez edo gaztelaniaz ongi hitz egiteko gai direnak, euskaraz gauza guti dakitenak.

Oharra : Euskaldun elebakarrak eta elebidunak ditugu ikerketa honetan euskaldunak kontsideratuko.

Hiztunen tipologiaren bilakaera (112)

Elebitasunaren bilakaera erakutsiko dugu bi ikerketa elkarretaratuz, 1996ko "II. Soziolinguistikazko Inkesta, Euskararen jarraipena II" eta 1999ko "Gaztetxoak eta euskara" ikerketa. Adin multzoak definitu ditugu 2000. urtea erreferentziaz hartuz eta erdigune bat ezarriz. Adibidez, 1995ean 16 - 24 urte zituztenek 2000. urtean 21 - 29 urte dituzte, beraz 25 urte guti gora-behera. 1998an 13 - 14 urte zituztenek, 2000. urtean 15 - 16 urte dituzte, demagun 15 urte.

Hurrengo 3 taulek (2.4 ; 2.4 bis eta 2.4 ter oinarritzko edizioko 2.4 taulatik ateratzen dira) iparraldeko emaitzak agertzen ditu. Elebidunen gainbehera nabari da, 70 urtekoetarik 25 urtekoetara, % 37tik % 11ra. Eta bereziki jauste izigarria izan da 45 et 35 urtekoen artean (nonbait han 1950 eta 1965. urteen artean sortuak direnetan, horiek baitira gerla ondoko "baby boom" denborakoak). Gaur egun gain-behera eztitu da gazteen eta gaztetxoaren artean, % 11 eta % 9. Datozen ikerketetan garapen bat agertuko da euskaltasunarentzat, gaur egun lehen mailako ikasleetan %16 baitabilta edo ikastoletan edo gela elebidunetan, euskara ongi ikasteko menturarekin.

2.4 taula : Hizkuntza gaitasunaren bilakaera adinaren arabera, iparraldean

Adina	70 urte	60 urte	45 urte	35 urte	25 urte	15 urte
Euskaldun	37	32	27	14	11	09
Elebidun hartzaile	6	9	9	13	13	13
Erdaldun	56	60	64	73	75	78
OROTARA	100	100	100	100	100	100

Ohargarri da ere elebidun hartzaileen kopurua txikia dela zaharragoetan (% 6) eta 40 urtekoetarik behera berdintsu gelditzen dela (% 13). Ez dakigu nor diren erdi-euskaldun horiek, euskara ahazten ari direnak ala ikasten. Dena dela erdaldunen kopurua handitzen ari da, baina gero eta emekiago.

Konparaketa bat egin dezagun hegoaldearekin ikusiz zein diren euskaldunen ehunekoak, adin-multzo batetik bestera. Euskaldunak aipatzen ditugularik hemen elebakarrak dira eta egiazko elebidunak, elebidun hartzaileak kontuan hartu gabe. Han eta hemen egoera oso ezberdina da eta han gertatzen denak asmatzea eman dezake geroan zer gerta daitekeen hemen ere (egiazko hizkuntza politika batekin).

2.4 bis taula : Euskaldunen ehunekoak adinaren arabera, lurraldeka

Adina	70 urte %	60 urte %	45 urte %	35 urte %	25 urte %	15 urte %
Iparraldea	37	32	27	14	11	9
Nafarroa	10	9	9	9	11	20
E.A.E.	29	21	21	25	33	62

Autonomia Erkidegoko kurba, iparraldekoaren alderantzizkoa da. Hemen zaharrago eta euskaldunago, han gazteago eta euskaldunago, ezaugarri hobea baita etorkizunari begira. Nafarroan ere E.A.E.ko bilakera berdina ikus daiteke bainan baretasun gehiagorekin. Bi lurralde horietan ohar bera egin daiteke, azken 10 urte hauetan euskaldunen kopurua kasik bikoiztu dela gazteen eta gaztetxoaren artean, E.A.E.n % 33tik %62ra, Nafarroan % 11tik % 20ra.

Ohar hau itxaropentsu da iparraldearentzat. Matematikalariek erabiltzen duten katastrofearen teoriak dio : kurba bat laster jausten delarik, abiadura berean igaiten dela, beherean "plegu" bat aurkitzen duenean, hots gertakari mugatu bat kontestu guztia aldatzen duena. Hegoaldean "plegua" haurren eskal ikaskuntza zabaltzea izan da eta gertakari honek familietako hizkuntza jokamoldea sakonki aldatu du. Iparraldean zabaltze hori programatua da hizkuntza antolaketa eskeman.

Bestalde, 2.4 ter taulan elebidunak eta elebidun hartzaiak elkarrekin bildu ditugu erakustera emaitako zenbat erdaldun soil dauden lurraldeka. Gainera, euskalduntze urraspidean elebidun hartzaiaren multzoak erran-nahi handia du. Erdaldunak euskaltasunera heltzeko talde hortarik pasatu behar du.

2.4 ter taula : Elebidun eta elebidun hartzaiaren ehunekoak adinaren arabera

Adina	70 urte %	60 urte %	45 urte %	35 urte %	25 urte %	15 urte %
Iparraldea	43	41	36	27	24	22
Nafarroa	13	14	23	23	23	35
E.A.E.	34	27	32	52	70	93

Ikusten da hegoaldean euskaltasun osoaren kurba gora doala azken mende erdi honetan. Aldiz, iparraldean mende osoan gainbeherak jarraitzen du, azken hamar urteetan eztitu bada ere, agian beste bide bat hartzeko.

Euskararen balio komunikatiboa (125)

Gaztetxo euskaldunei galdegin zaie dakiten euskarak zer balio duen beste euskaldunekin komunikatzeko. Beren iritzia zehazki emaitako, euskaraz mintzatzeko egoera ezberdinak aztertu behar zituzten. Hauek ziren galderak :

- "Dakizun euskararekin euskaldunekin ongi komunika dezakezu :

Inguruko zure adinekoekin eta xaharrekin ?

Urrunagoko zure adinekoekin eta xaharrekin ?"

- "Nolako euskara mintzatzen duzu ?"

Hona emaitzak lurraldeka.

2.22 - 2.24 - 2.26 - 2.28 taulak : Dakiten euskararen balio komunikatiboa

Gehienetan bai	Iparraldea %	Nafarroa %	E.A.E. %
Beren eskualdeko gazteekin	69	80	84
Beren eskualdeko adinekoekin	59	58	64
Beste eskualdeetako gazteekin	33	62	58
Beste eskualdeetako adinekoekin	20	41	43
Euskara batua badakite	41	79	82
Herriko euskara badakite	72	47	45

Iparraldeko gaztetxoek arabera dakiten euskarak balio du beren adineko lagunekin (% 69), eta neurri txikiagoan jende helduekin (% 59). Baina ez da baliagarri beste eskualdeetako gazteekin (% 33), are gutiago zaharragoekin. Hemen agertzen da euskalkien zailtasuna.

Hegoaldeko gaztetxoek arabera, dakiten euskarak gaitasun komunikatibo handia dauka egoera guztietan, % 84etaraino beren artean. Salbu beste eskualdeetako solaskide helduekin, hain segur eskualkiengatik.

Alabaina euskara batuaren ezagutzak zabaltzen du hiztunen komunikatzeko gaitasuna, euskalkien gaitetik. Adibidez, iparraldeko gazteak hegoaldean baino erdia gutiago dira (% 41) euskara batuan trebe direnak. Hain segur gauza bera gertatzen da hegoaldeko adinekoetan ; hauek zailtasunak dituzte gazteekin hitzegiteko. Aldiz, iparraldeko gaztetxoak (%72) hegoaldekoak (%45 eta 47) baino askoz trebeago dira tokiko euskararen.

2. EUSKARAREN ERABILERA

Atal honetan aztertuko dugu gaztetxo euskaldunek non eta nola erabiltzen duten euskara, bereziki pentsatzeko, etxean eta lagunekin.

Pentsatzeko hizkuntza (135)

Euskara ongi dakiten gaztetxoei galdegin zaie pentsatzeko zein hizkuntza erabiltzen duten. Hona galdea eta erantzunak.

- *"Pentsatzeko, zein hizkuntza erabiltzen duzu ?*

Beti euskara.

Euskara frantsesa baino gehiago.

Bi hizkuntzak berdin.

Frantsesa euskara baino gehiago.

Beti frantsesa."

Hegoaldekoentzat hautua euskararen eta gazteleraren artean zen. Taulen irakurgarritasuna errexteko, lehen eta bigarren erantzunak bilduko ditugu, bai eta ere laugarrena eta bosgarrena, hiru lerrotan : euskara nagusi, biak berdin, erdara nagusi.

Gainera, beste taula batzutan "biak berdin" lerroa beste bi lerroetan banatuko dugu, erdiz erdi zatituz, nolazpait neurtzeko zenbat euskara erabiltzen den pentsatzeko, etxean edo lagunartean.

3.1 taula : Gaztetxo euskaldunen pentsatzeko hizkuntza

	Iparraldea	Nafarroa	E.A.E.	EUSKAL HERRIA
Euskara nagusi	31	35	34	35
Biak berdin	28	32	20	21
Erdara nagusi	41	33	46	44
OROTARA	100	100	100	100
Zenbat euskara	45	51	44	45
Zenbat erdara	55	49	56	55

Hiru lurraldeak konparatuz, Nafarroako gaztetxoek euskaraz dute nagusiki pentsatzen eta Autonomia Erkidegokoek gaztelaniaz nagusiki. Gaztetxo euskaldunen neurri ohargarri batek bi hizkuntzak baliatzen ditu gogoetak egiteko.

Etxeko hizkuntza (136.)

Alde batetik, ikusi behar da gaztetxoek zein hizkuntza erabiltzen duten etxean familiako kideak elgarrekin daudelarik, eta bestalde, mintzakide bakoitzarekin (adibidez amarekin, aitarekin, anai-arrebekin). Galdea hau da :

"Zein hizkuntzetan mintzatzen zara aitarekin, amarekin, anai-arrebekin, aitatxi-amatxiek ?"
Erantzunak hiru multzotan bildu ditugu aitzinagoko taulan bezala.

3.5 taula : *Gaztetxo euskaldunen hizkuntza familia bildua delarik*

	Iparraldea	Nafarroa	E.A.E.	EUSKAL HERRIA
Euskara nagusi	35	22	26	26
Biak berdin	22	08	07	07
Erdara nagusi	43	70	67	66
OROTARA	100	100	100	100
Zenbat euskara	46	26	30	30
Zenbat erdara	54	74	70	70

Euskal Herri osoan frantsesa edo gaztelania dira nagusi familietan. Oro har iparraldeko gaztetxo euskaldunek dute euskara gehienik erabiltzen (% 46). Aldiz, hegoaldekoek biziki guti (% 26 edo 30). Nola ulert ezberdintasun handi hori, non ere euskararen aldeko gaitasuna handiago eta erabilera ahulago ?

Erran genezake iparraldeko jende adinetakoak hegoaldekoak baino euskaldunago direla adin-multzoen euskaltasuna gogoan izanez. Ondorioz euskara dakiten gaztetxoek, hegoaldean baino gutiago badira ere, etxean aukera gehiago dutela euskaraz hitz egiteko.

Iparraldeari mugatuz, ikus dezagun gaztetxo euskaldunek familian norekin euskaraz mintzatzen diren eta zein neurritan.

3.8 taula : *Gaztetxo euskaldunen hizkuntza familiako solaskideekin, iparraldean*

	Aitarekin	Amarekin	Haurrideekin	Aiton-amonekin
Euskara nagusi	41	39	36	56
Biak berdin	16	12	17	10
Erdara nagusi	42	49	47	34
OROTARA	100	100	100	100
Zenbat euskara	49	45	45	61
Zenbat erdara	51	55	55	39

Iparraldean gaztetxoek aitatxi eta amatxiekin dute gehienik euskaraz hitz egiten (%56), eta anai-arreben artean gutienik (% 36). Bestalde, aitarekin gehiago euskaraz mintzatzen dira amarekin baino. Oro har eta hizkuntza kantifika daiteken neurrian, frantses gehixago erabiltzen dute amarekin eta haurrideen artean (%55), euskara askoz gehiago aiton-amonekin (% 61) eta bi hizkuntzak berdintsu aitarekin.

Konparaketa egin dezagun hegoaldearekin, euskara bakarrik kontuan hartuz.

3.7tik 3.10 taulara : *Gaztetxo euskaldunen hizkuntza familiako solaskideekin, lurraldeka*

	Iparraldea %	Nafarroa %	E.A.E. %	EUSKAL HERRIA %
Aitarekin	41	28	29	29
Amarekin	39	27	28	27
Haurrideekin	36	38	36	32
Aiton-amonekin	56	29	31	31

Iparraldean da euskara gehiago erabiltzen familian, edozein solaskiderekin, baina bereziki aitatxi-amatxiekin eta aitarekin. Hegoaldeko familietan gaztelania da nagusi, bereziki gurasoekin eta aiton-amonekin. Euskara gehixago erabiltzen da anai-arrebekin : % 38 eta 36.

Lagunarteko hizkuntza (142)

Gaztetxoentzat lagunartea da komunikazio eremu garrantzitsua : lanean, denbora pasan, kirolean eta beste ekintza askotan.

Galdea hau da : *“Zein hizkuntzetan mintzatzen zara pertsona hauekin :*

- *eskolako lagunekin klasean zaudelarik,*
- *eskolako lagunekin klasetik kanpo zaudelarik,*
- *eskolaz kanpoko lagunekin,*
- *auzoko neska-mutil gehienekin ?”*

Hurrengo tauletan lau laburdura erabiliko ditugu : ikasgelan, ikastetxean, adiskideekin, auzoan. Galde honek harreman sareak tokiaren arabera sailkatzen ditu, jakinez ikastetxetik kanpo ere, adibidez auzoan, lagunak ikaskideak izan daitezkeela. Erantzunak bost motakoak dira, etxean erabiltzen diren hizkuntzentzat bezala. Hona iparraldeko emaitza batzu.

3.14 taula : *Gaztetxo euskaldunen hizkuntza lagunartean, iparraldean*

	Ikasgelan	Ikastetxean	Adiskideekin	Auzoan
Euskara nagusi	36	25	14	10
Biak berdin	10	17	17	12
Erdara nagusi	53	54	65	72
Beste kasuak	1	4	4	6
OROTARA	100	100	100	100
Zenbat euskara	41	31	22	16
Zenbat erdara	59	69	78	84

Iparraldeko gaztetxo euskaldunek lagunartean direlarik eta edozein egoeratan, frantsesa nagusiki erabiltzen dute, ikasgelan (% 53), ikastetxean orokorki (% 54), ikastetxetik kanpoko harremanetan (%65) eta bereziki auzoko lagunekin (% 72).

Egoera hau uler daiteke ikusiz gaztetxoaren euskaltasuna zein ahula den, euskarazko ikastaldietarik urrunago eta ahulago.

Beste lurraldeekin konparaketa egin genezake, euskararen neurri kantitatiboa erabiliz, jakinez gainera-tekoa erdararen hazta dela.

3.12tik 3.16 taulara :
Lagunartean gaztetxoek erabiltzen duten euskararen neurria , lurraldeka

	Iparraldea %	Nafarroa %	E.A.E. %	EUSKAL HERRIA %
Ikasgelan	41	68	51	52
Ikastetxean	31	36	37	36
Adiskideekin	22	33	36	35
Auzoan	16	28	35	35

Euskara erdara baino gehiago erabiltzen da bakarrik Nafarroako eta E.A.E.ko ikasgeletan : % 68 eta % 51. Beste lagunarte egoera guztietan frantsesa edo gaztelania dira nagusi. Orotan norabide hau agertzen da : eskolatik urruntzean euskararen erabilera ahultzen dela, eta iparraldean hegoaldean baino lasterrago.

Ikasgelako euskararen erabilera hizkuntza ereduari lotua da. Iparraldeko kolegioetan murgilbidea eta elebitasuna ez dira biziki zabalduak. Askotan euskara hautuzko ikasgaia da. Ikastetxeko hizkuntza bezala, euskara hein bertsuan erabiltzen da 3 lurraldeetan. Ikastetxetarik kanpo gertatzen da ezberdintasun handia iparraldearen eta hegoaldearen artean, hain zuzen gaztetxoek euskalduntasunak duen ezberdintasunaren heinekoa.

4. EUSKARARI BURUZKO IRITZIAK

Geroari buruz interesgarri da ikustea zein diren gaztetxoek iritziak euskarari buruz. Hortakotz galde hauek egin zaizkie :

- "Zure ustez, ondoko pertsona hauek nolako interesa dute euskararentzat :
aitak amak,
zure anai-arreba gehienek,
eskolaz kanpo dituzun lagun gehienek,
zure ikaskide gehienek,
auzoko neska-mutil gehienek ?"

- "Zuhaurek nolako interesa duzu euskararentzat ?"

Bost mailatako erantzunak eman dituzte :

- interes handia,
- aski handia,
- artekoa,
- interes tipia,
- interesik batere ez.

Aurkezpen honetan erantzunak bildu ditugu hiru lerrotan : "interes (aski) handia" (1. eta 2. erantzuna), "interes eskasa" (3. eta 4. erantzuna) eta interesik batere ez.

Inguruko personen interesa (174)

Hurrengo taulan agertzen da iparraldeko gaztetxoek beren familiakoek duten interesa, bai eta ere ikaskideek, euskarari buruz.

4.1tik 4.2 taulara : Familiakoek eta ikaskideen interes maila euskarari buruz, iparraldean

Interes maila	Aitak	Amak	Haurideek	Ikaskideek
(Aski) handia	29	21	12	08
Eskasa	32	33	24	18
Batere ez	37	45	64	74
Erantzunik ez	2	1	0	
OROTARA	100	100	100	100

Gaztetxoek ustez, gurasoetan aitak du interes handiena eta gurasoek anai-arrebek baino gehiago. Lagunen interesa harrigarri tipia da. Konparaketa bat egin dezagun beste lurraldeekin, bakarrik kontuan hartuz familian nork duen interes handia eta aski handia.

4.1 taula : Familiakoen euskarari buruzko interes (aski) handia , lurraldeka

	Iparraldea %	Nafarroa %	E.A.E. %	EUSKAL HERRIA %
Aitak	29	25	39	35
Amak	21	23	42	37
Haurrideek	12	28	50	42
BATAZ-BESTE	21	25	44	38

E.A.E.ko familietan euskarari buruzko interesa askoz handiagoa da (% 44) beste lurraldeei konparatuz (% 21, % 25). Iparraldean ez bezala, hegoaldean haurrideek gurasoek baino interes gehiago dute euskarentzat.

Gaztetxoen euskarari buruzko interesa

Gaztetxoen inguruan bizi direnen interesa ikusi ondoren, berek adierazi dute zenbat eta zergatik interesatzen diren (edo ez) euskarari. Hona hiru herrialdeetako emaitzak.

4.3 taula : Gaztetxoen euskarari buruzko interesa, lurraldeka

Interes maila	Iparraldea	Nafarroa	E.A.E.	EUSKAL HERRIA
(Aski) handia	25	39	68	59
Eskasa	39	32	25	27
Batere ez	35	29	7	14
OROTARA	100	100	100	100

Iparraldean euskarari interesatzen diren gaztetxoak laurden bat dira. Gutti edo batere ez interesatzen direnak zoritxarrez gehiengoan dira (% 39 eta %35).

Hegoaldean gaztetxoen gehiengoak interes handia edo aski handia erakustera emaiten du. Ezberdintasun ohargarri batekin halere Nafarroaren eta E.A.E.aren artean: % 39 eta % 68. E.A.E.an da beraz euskararen aldeko kartsutasun handiena.

Euskarari eratziki ezaugarriak (177)

Gaztetxoek herri hizkuntza nola ikusten duten argitu nahiz, euskararen ezaugarriak neurtu behar ziren. Adibidez 9 punduko eskala bat erabiliz, bakoitzak erran du harentzat euskara hizkuntza zaila ala errexena den. Kasu honetan hona punduek zer adierazten duten :

- 1, 2, 3 : euskara hizkuntza zaila dela ;
- 4, 5, 6 : hizkuntza zaila ala errexena ezin dela trenka ;
- 7, 8, 9 : euskara hizkuntza errexena dela.

Erantzunen guztien bataz-bestekoa eginez lurraldeka agertzen da gaztetxoen euskarari buruzko ikusmoldea ehunekotan :

- hizkuntza zaila ala errexena,
- arrotza ala gutartekoa,
- baliogabekoa ala beharrezkoa,
- iraganekoa ala etorkizunekoa,
- baserrikoa ala hirikoa.

Ageri da ikusmolde hauek badutela zerbait ikusteko euskararen etorkizunarekin, alabainan jokoan diren faktoreak dira ikaskuntza, nortasun kolektiboa, erabilera eta hiritasuna. Hurrengo taulak labur biltzen du gaztetxoek ikusmoldea euskarari buruz. Bi muturretako erantzunak atxiki ditugu, aldi bakoitz garrantzitsua larritz emanez.

4.4tik 4.8 taulara : Euskararen ezaugarriak lurraldeka

1, 2, 3 puntu	Iparraldean %	Nafarroan %	E.A.E.n %	7, 8, 9 puntu
Zaila	Z : 57 ; E : 17	Z : 49 ; E : 23	Z : 19 ; E : 49	Errexa
Arrotza	A : 32 ; G : 34	A : 27 ; G : 43	A : 11 ; G : 63	Gurea
Alferrikakoa	A : 32 ; B : 32	A : 22 ; B : 40	A : 11 ; B : 66	Beharrezkoa
Iraganekoa	I : 39 ; E : 21	I : 19 ; E : 42	I : 12 ; E : 57	Etorkizunekoa
Baserrikoa	B : 51 ; H : 14	B : 31 ; H : 19	B : 28 ; H : 35	Hirikoa

Ikusmolde ezberdinak agertu dira lurralde batetik bestera. Erran daiteke eskuineko zerrenda ezkerrekoa baino baikorrago dela euskararen geroari begira.

Iparraldeko gaztetxoentzat euskara da zaila, gurea, iraganari lotua, baserritarra. Ez dute euskara argiki baloratzen : % 32ek erraiten dute beharrezkoa dela ; beste hainbestek baliogabekoa dela eta hirugarren herenak baliogabekoa bezain beharrezkoa dela. Oro har euskarari itxura tradizionala emaiten diote, lehenagoko laborarien hizkuntzarena. Halere, beren hizkuntza dela erraiten dute. Hurbiltasun bat emaiten diote.

Nafarroako gaztetxoentzat euskararen ezaugarriak hauek dira : zaila, gurea, beharrezkoa, etorkizunari begira, hiriari baino baserriari lotuagoa. Hemen ere hizkuntza laborantzari lotua da ; iparraldean baino gutiago, halere. Haatik, euskara aurrerakor ikusten dute, geroari irekia eta hiritarra.

E.A.E.ko gaztetxoek diote euskara dela erretxa, gurea, beharrezkoa, etorkizunari buruzkoa eta hiritarra. Hots, erantzun guztiak baikorrak dira. Salbu ezaugarri batean, iparralde alderantzizko ikusmoldea dute. Nafarroa biderdian dago hiru erantzun baikorrek. Hiru lurraldeetan agertzen den ikusmolde amankomuna euskara gure hizkuntza dela. Nortasun kolektiboaren kontzientzia bada Euskal Herri osoan.

Euskararen erabilerari buruzko iritziak (179)

Zein diren gaztetxoek iritziak euskarari buruz jakiteko, hamar esaldi proposatu zaizkie eta beren adostasuna edo adostasun-eza adierazi dute. Esaldiak zerrendatu ditugu, lehenik ikusmolde berdina ardiesten dutenak eta, gero, ikusmolde ezberdinak sortzen dituztenak emanez.

4.9 taula : Euskarari buruz gehiengoak duten iritziak, lurraldeka

Ikusmolde berdina	Iparraldea %	Nafarroa %	E.A.E.n %
1. Ez dago euskal kulturarik euskararik gabe	Ados 63	Ados 39	Ados 56
2. Euskara jakitea ez da aski, eguneroko bizian erabili behar da	Ados 40	Ados 37	Ados 52
3. Euskaraz mintzatzeko toki eta ekintza gehiago izatea gustatuko litzaidake	Ados 27	Ados 37	Ados 50
4. Euskara dakiten helduek, beren artean gehien bat erdaraz ari dira	Ados 37	Ados 28	Ados 34
5. Eskolan ez da euskara irakatsi behar, ikasi nahi duenak berak ikas dezala	<i>Aurka 48</i>	<i>Aurka 63</i>	<i>Aurka 72</i>
6. Denek erdara dakigunez, ez dago euskara jakitearen beharrik	<i>Aurka 48</i>	<i>Aurka 51</i>	<i>Aurka 68</i>

Ikusmolde ezberdinak	%	%	%
7. Haurrek euskara ikastea behar-beharrezkoa da	<i>Aurka 44</i>	<i>Aurka 53</i>	Ados 59
8. Euskarak hautuzko ikasgaia izan behar luke	Ados 52	Ados 52	<i>Aurka 53</i>
9. Egiazko euskalduna izaiteko, euskara jakitea ez da beharrezkoa	<i>Aurka 38</i>	Ados 45	39 = 39
10. Ongi da euskaldunak beren artean euskaraz mintzatzea, nahiz eta ondoko guztiek ez jakin	Ados 37	<i>Aurka 49</i>	Ados 39

Taula honetan gehiengoak duten erantzunak atxiki ditugu. Ohargarri da hiru lurraldeetan gaztetxoek ikusmolde berdina dutela euskararen erabilerari buruz 10 esaldietatik 6etan. Gainera Iparraldea eta Nafarroaren artean berdintasuna dago 8 esalditan.

Adostasuna agertzen da bereziki euskara nortasun kolektiboarekin lotzen delarik : kulturarekin (1), euskaldun izaitzarekin (6). Erdaraz ari diren euskaldun helduen jarreraz ohartu dira gaztetxoak (4), baina ohartzeak ez du erran nahi. Iparraldean gehiengoak ados da erraiteko euskara jakin behar dela euskaldun izaiteko (9) ; E.A.E.n dudak badituzte eta Nafarroako ikasleen ustez euskara jakin gabe euskaldun izan daiteke.

Ikusmolde ezberdinak eskolako irakaskuntzari buruz agertzen dira. Denak ados dira euskara eskolan irakatsi behar dela nahitez (5). Gero iritziak bereizten dira nolako irakaskuntza eskaintzen den. Irakaskuntza beharrezkoa (7) : Iparraldea eta Nafarroa aurka, E.A.E. alde. Ala irakaskuntza hautuzkoa (8) : Iparraldea eta Nafarroa alde, E.A.E. aurka.

Euskararen erabilerari buruz denak ados dira erraiteko euskara jakitea ez dela aski, egunero erabili behar dela (2) eta hortarako toki eta ekintza gehiago behar litzatekeela (3). Haatik, E.A.E.ko ikasleek kartsutasun handiagoko erakusten dute.

Oro har, Iparraldeko gaztetxoak euskararen irakaskuntzari eta erabilerari buruz hegoaldekoak baino epelago agertzen dira : % 27rentzat euskarazko tokiak eta ekintzak behar dira, baina ez gehiegi. Aldiz, euskara nortasun kolektiboari lotzen dute hainbestetaraino non euskaldunek beren artean euskaraz hitzegin dezaketan (10), erdaldun bat edo beste balin bada ere heiekin.

Hizkuntza egoerak (195)

Interesgarria da jakitea gaztetxoek iritziak euskara komunikatzeko tresna egokia denez. Horretarako 17 marrazki ikusi zituzten bakoitzak komunikazio egoera berezi bat adierazten zuelarik : kanpalekua, familia, baserria eta beste. Galdera honi erantzun behar zioten : "Zure ustez zein hizkuntza doakio hobekienik, toki edota pertsona hauei ?"

Bost erantzunetarik bat hautatu behar zuten :

- Euskara hobekienik.
- Frantsesa hobekienik. (hegoaldean gaztelania)
- Euskara edo frantsesa, berdin da.
- Ez euskara ezta frantsesa, ingelesa hobe;
- Edozein hizkuntza berdin.

Hurrengo taulak euskarari eta tokiko estatu hizkuntzari buruzko erantzunak agertzen ditu, lurraldeka. Egoera bakoitzarentzat bi zenbaki agertzen dira : ezkerrean euskara eta eskuinean frantsesa (edo gaztelania) hautatu dutenen gaztetxoek ehunekoa.

4.16tik 4.20 taulara : Zein toki edo pertsonari doakion euskara edo erdara

Hizkuntza egoera	Iparraldea euskara % erdara	Nafarroa euskara % erdara	E.A.E. euskara % erdara
Laborantzan	44 - 26	18 - 50	32 - 34
Baserrian	35 - 34	35 - 41	67 - 16
Aitatxi-amatxiek	37 - 31	19 - 52	36 - 37
Amarekin	15 - 49	17 - 53	38 - 32
Familian	14 - 44	18 - 50	37 - 33
Elizkizunetan	26 - 34	11 - 59	27 - 40
Kontzertuetan	20 - 8	15 - 33	22 - 27
Kanpalekuan	10 - 51	22 - 46	35 - 32
Mintzaldietan	8 - 55	11 - 56	23 - 43
Futbolekin	8 - 50	13 - 54	28 - 38
Ikasgelan	7 - 60	15 - 56	35 - 32
Bikotean	7 - 56	11 - 56	26 - 43
Irratietan	7 - 57	14 - 55	25 - 41
Sendagilearekin	5 - 60	11 - 59	24 - 43
Lantegian	5 - 49	10 - 52	22 - 38
Ordenagailuarekin ariz	3 - 49	12 - 51	22 - 37
Telekomunikazioetan	3 - 32	9 - 36	18 - 30

Emaitzak komentatzerakoan, lau komunikazio eremu bereiz daitezke : baserria, familia eta hezkuntza, jendaurreko ekintzak eta lan mundu modernoak.

Baserriko hizkuntza naturala euskara dela ados daude 3 lurraldeetako gaztetxoak, eta neurri handiekin E.A.E.koak. Iparraldekoentzat laborantzan ere euskara da hizkuntza egokiena, eta dudarik gabe. Beste lurraldeetan ez.

Familian eta hezkuntzaren eremuetan zein da euskararen tokia gaztetxoek ustez? Iparraldean, euskara aitatxi-amatxiek hitz egiteko da egokiena. Bainan aita-amekin, familian orokorki, ikasgelan eta kanpalekuan frantsesez hobe gehiengoaren ustez.

Alderantziz, E.A.E.ko gaztetxoek diote euskara hizkuntza egokiena dela aipatu toki horietan, aiton-amonekin bi hizkuntzak berdintsu balin badira ere.

Nafarroako gaztetxoek pentsatzen dute gaztelania dela egokiena orotan.

Jendaurreko ekintzetan sartzen dira besteak beste futbola, hitzaldiak, irrati emankizunak, elizkizunak, bikote harremanak, konzertuak. Hiru lurraldeetako gaztetxoek arabera, egoera guzti hauetan, hizkuntza egokiena estatu hizkuntza da. Salbu Iparraldeko konzertuetan : hemen, euskara frantsesari nagusitzen da (baina ez ingelesari).

Lanbide modernoetan ezar genezazke lantegiak, sendagileen lana, ordenagailu aitzineko ariketak eta telekomunikazioak. Gune hauetan frantsesa , gaztelania edo ingelesa dira hizkuntza egokienak, neurri handi batean. Gutxiengo tipik batek euskarari ematen dio toki bat : % 4ek iparraldean, % 10ek Nafarroan eta % 22k E.A.E.n.

Euskararen etorkizuna (201)

Gaztetxoei beren iritzia galdegin zaie euskararen etorkizunaz, ikuspegi ezberdinak ikertuz :

- zer etorkizun desiratzen dioten euskarari ;
- zein hizkuntza mintzatu beharko litzatekeen Euskal Herrian ;
- geroan zein hizkuntza erabil lanerako, ikasteko ;
- zer egiteko prest diren euskararen egoera hobetzeko.

Euskararen jarraipenaz

Galdera hau zen : *“Hemendik urte batzuetara euskarari zer etorkizun desiratzen diozu ?”*. Lau erantzun eman zezazketen euskararen geroaz :

- Euskara galduz joatea nahi nuke.
- Berdin zait zer gertatzen den euskararekin.
- Euskara gaur dagoen bezala jarraitzea nahi nuke.
- Euskara ondoko urteetan indartzea eta zabaltzea nahi nuke.

Emaitzak ikus ditzagun lurraldeka eta Euskal Herri osoan.

4.21 taula : Gaztetxoek euskarari desiratzen dioten etorkizuna

Interes maila	Iparraldea	Nafarroa	E.A.E.	EUSKAL HERRIA
Euskara galduz joatea nahi nuke	6	7	8	7
Berdin zait zer gerta euskarari	25	29	12	17
Orain bezala jarraitzea nahi nuke	44	28	26	28
Indartzea eta zabaltzea nahi nuke	26	36	54	48
OROTARA	100	100	100	100

Iparraldeko gaztetxoek, gehiengo handi batean, gaur eguneko egoera berdina desiratzen diote euskarari. Honek erakustera emaitzen digu informazio eta konzientizazio lan handi bat egiteko gelditzen dela.

Hegoaldean, aldiz, euskara indarberritzea eta zabaltzea nahi dutenak gehiengoan dira, anitzez E.A.E.n (% 54), gutxiagoz Nafarroan (% 36).

Euskararen jarraipenaz axolatzen ez direnen kopuruak gogoetarazten gaitu : laurden bat Iparraldean, heren bat Nafarroan eta % 12 E.A.E.n.

Euskal Herriko hizkuntzak (202)

Galdegin da ere gaztetxoer etorkizunean zein hizkuntza nahi dituzten Euskal Herri osoarentzat eta lurralde bakoitzarentzat. Galdera hau zen :

“Zure ustez, geroan, zein hizkuntzatan mintzatu beharko litzateke

- *Euskal Autonomia Erkidegoan (Araba, Bizkaia, Gipuzkoa) ?*
- *Eta Nafarroan ? Eta Ipar Euskal Herrian ?*
- *Eta Euskal Herrian orokorki ?*

Hona erantzunen zerrenda :

- *Euskaraz nagusiki,*
- *Frantsesez edo gaztelaniaz nagusiki,*
- *Euskaraz eta frantsesez (edo gaztelaniaz).*

4.23 taula : *Gaztetxoeren iritzia beren lurraldeetako geroko hizkuntzetaz*

	Iparraldea	Nafarroa	E.A.E.
Euskaraz nagusiki	18	20	52
Erdaraz nagusiki	22	49	13
Euskaraz eta erdaraz berdin	60	32	35
OROTARA	100	100	100

Iparraldeko gaztetxoeren gehiengo handiaren iritziz, elebitasuna nagusi izan behar litaik bere lurraldean. Bestalde, badakigu gauza bera pentsatzen dutela beste lurraldeentzat baina neurri tipiagoan.

Nafartar gaztetxoeren gehiengoak uste du gaztelaniak izan behar duela hizkuntza nagusia Nafarroan. E.A.E.ko gaztetxoeren erdia baino gehiagok pentsatzen du euskarak hizkuntza nagusia izan behar lukeela bere lurraldean. Heren baten ustez, elebitasuna litaik hizkuntza egoera egokiena.

Euskararen tokia geroko lanetan (203)

Gaztetxoei galdegin zaie etorkizunean, lan egiteko, euskara zein neurritan beharrezkoa izanen zaien. Galdera : *“Geroan lana egiteko euskara jakin beharko duzula uste duzu, bai ala ez ?”*

Emaitzak oso ezberdinak dira lurraldeka.

4.24 taula : *Gaztetxoeren iritzia laneko hizkuntzei buruz*

Euskararen beharra lan egiteko	Iparraldea	Nafarroa	E.A.E.	EUSKAL HERRIA
Bai	22	46	77	65
Ez	74	54	23	35
Erantzunik ez	4	0	0	0
OROTARA	100	100	100	100

E.A.E.ko gaztetxoek gehiengo handi batek (%77) dio etorkizunean euskararen beharra ukanen duela lan bat aurkitzeko. Iparraldean gehiengo berdintsuak (%74) uste du euskararen beharrik ez duela izanen lan egiteko. Aldiz, Nafarroan baiezko eta ezezko erantzunak hein berdintsuan daude : % 46 eta % 54.

Euskararen tokia geroko ikasketetan (204)

Galdera hau egin zaie gaztetxoei beren geroko ikasketetarako buruz. Galdera honi erantzuteko 4 hautu eskaini zaizkie :

“Hemendik aitzina, nolako ikasketak egin nahi zenituzke ?

- *Ikasgai gehienak euskaraz eta besteak frantsesez.*
- *Ikasgai gehienak frantsesez eta besteak euskaraz.*
- *Ikasgai guztiak frantsesez, salbu hizkuntzak.*
- *Ikasgai guztiak euskaraz, salbu hizkuntzak”.*

Hurrengo taulan 1. eta 4. erantzunak elkarrekin metatu ditugu, bai eta ere 2. eta 3. erantzunak, hobeki erakusteko euskararen eta erdararen arteko hautua. Hona emaitzak, aldi honetan ere ezberdinak lurralde batetik bestera.

4.25 taula : Gaztetxoek iritziak ikasteko hizkuntzetarako buruz

Gustuko hizkuntzak ikasgaietan	Iparraldea	Nafarroa	E.A.E.	EUSKAL HERRIA
Guztiak edo gehienak euskaraz	9	22	50	40
Guztiak edo gehienak erdaraz	91	77	50	60
OROTARA	100	100	100	100

Iparraldeko gaztetxoek % 91k nahi dute bere geroko ikasketak frantsesez egin. Alabaina, ikasketak aitzinatzearekin euskararen lekua gero eta txikiagoa da. Unibertsitatean euskara “Euskal Ikasketetan” mugatzen da, eta sail horretan ere ikasgai batzuetan frantsesez emaiten dira.

Nafarroako gaztetxoek ere geroko ikasketak gaztelaniaz bakarrik egin nahi dituzte (% 60) edo gaztelaniaz nagusiki (% 17). E.A.E.n gaztetxoek erdian asmoa da etorkizunean ikasgai guztiak edo gehienak euskaraz eramatea. Halere, harrigarri da ikustea beste erdiaren ikasketak hizkuntza iduriz gaztelania izanen dela, dakigularik denek eskolan euskara erabiltzen dutela. Ala aments euskara ez ote da heientzat egokia goi mailako ikasketentzat ?

5. HIZKUNTZEN HAUTAPENA

Gaztetxoek euskarari buruz duten jarrera neurtzeko hizkuntzen arteko hautu bat eginarazi izan zaie. Gero konparaketa bat egin dugu aldagai asko kurutzatuz : euskaren ezagutza, maitasuna, euskarari buruzko iritziak. Molde honetan hautapenaren zergatia ager liteke.

Hizkuntza hautatuenak (184)

Galdea hau zen : "Pentsa ezazu ez dakizula hizkuntzarik eta gaur egun bizi zaren tokian bizi zarela, zein dira mintzatzea gustatuko litzaizkizukeen hizkuntzak ?" Informatika tratamendurako lehen hiru aukerak atxiki dira eta lau hizkuntza nagusiak : euskara, frantsesa, gaztelania eta ingelesa. Hona emaitzen taula.

4.11 taula : Gaztetxoen hizkuntza hautuak

	1.hautua	2.hautua	3.hautua	ORO HAR
EUSKAL HERRIA	100	100	100	100
Euskara	37	25	8	28
Gaztelania	38	30	10	31
Frantsesa	7	12	15	10
Ingelesa	11	19	47	20
Beste bat	7	14	20	11
IPARRALDEA	100	100	100	100
Euskara	17	21	9	17
Gaztelania	6	24	41	18
Frantsesa	47	22	4	31
Ingelesa	11	20	21	16
Beste bat	19	13	25	18
NAFARROA	100	100	100	100
Euskara	23	23	7	20
Gaztelania	55	17	7	34
Frantsesa	4	30	18	15
Ingelesa	8	9	27	22
Beste bat	10	21	41	19
E.A.E.	100	100	100	100
Euskara	43	28	8	32
Gaztelania	38	35	7	32
Frantsea	3	6	14	6
Ingelesa	11	22	56	22
Beste bat	5	9	15	8

Azter dezagun lehen hautuen zutabea. Gaztetxo batek lehenik aukeratu duen hizkuntzak ikasteko eta erabiltzeko motibazioari lotua da : edo hizkuntza maiteena delakotz, edo eraginkorrena dela uste baitu. Lehen hautu guztien ehuneko ateratuz, iparraldean gehienek frantsesa aukeratu dute (% 47) eta % 17k bakarrik euskara. Nafarroan gehiengo handi batek (% 55) gaztelaniari eman dio lehentasuna eta % 23k euskarari. Beraz bi lurralde hauetan, gaztetxoen ustez estatuko hizkuntza da garrantzitsuena eta gero herri hizkuntza.

Alderantziz, E.A.E.ko gaztetxoetan, % 43k euskara dute lehenik aukeratzen eta % 38k gaztelania.

4.11 taulako laugarren zutabea 3 hautuen bilduma da. Gaztetxoek hautatzen dituzten hizkuntza guztiak biltzen dituen batz-beste orekatua egin behar da, lerroz lerro, ponderazio baten bidez : lehen aukerari 3 puntu emanez, bigarrenari 2 puntu eta hirugarrenari puntu bat : $(3A + 2B + 1C) / 6$. Aldiz batz-beste soilak, $(A + B + C) / 3$, esanahi berdina eman lieke 3 aukerei eta ondorioz ingelesa hizkuntza nagusi ager liteke Euskal Herri osoan.

Batz-beste orekatuek erakusten digute Nafarroan (% 34) eta Ipar Euskal herrian (%31) estatu hizkuntza dela hautatuena.

Zorionez E.A.En euskara eta gaztelania neurri berean daude (% 32).

Nafarroan, bigarren hautua euskarari buruz doa (% 20), eta ondokoak frantsesari (% 15) eta ingelesari (% 12).

Autonomia elkartean aldiz, ingelesak (%22) frantsesa kasik baztertzen du (% 6).

Iparraldean euskara (% 17) kanpoko hizkuntzen hein bertsuan da (gaztelania % 18, ingelesa % 16).

Euskal Herri osoan, lau hizkuntzei buruzko hautu guztiak beren neurrian konbinatuz sailkapen hau ardiesten dugu : gaztelera % 31, euskara % 28, ingelesa % 20, frantsesa % 10.

Ikusitakoa laburbilduz eta batz-beste orekatua erabiliz, gaztelania eta euskara dira hegoaldean gaztetxoek hobesten dituzten hizkuntzak, hein berdinean E.A.E.n eta euskara doi bat ahulago Nafarroan. Iparraldean ere estatu hizkuntza da gaztetxoak gehien erakartzen duten hizkuntza eta frantsesaren ondotik gaztelania eta euskara, neurri berdintsuan.

Euskararen hautapena beste faktore batzueri konparatuz (186)

Gaztetxoek hizkuntza hautuak ulertzeko aldagai ezberdinak kurutzatu ditugu, hala nola, ezagutza, euskararen maitasuna, ikasketa guztiak edo gehienak euskaraz egiteko nahia, euskararen etorkizunari buruzko iritziak. Hurrengo taulan emaitzak zerrendatu ditugu.

4.11 - 4.12 taulak : Euskararen ezagutza eta euskarari buruzko jarrerak

Euskararen ezagutza eta jarrerak	Iparraldea %	Nafarroa %	E.A.E. %
1. Gaztetxo euskaldunak	9	20	61
2. Hizkuntzen artean euskara gehienik maitatzen dutenak	14	23	42
3. Euskara lan egiteko beharrezkoa dela pentsatzen dutenak	22	46	77
4. Ikasketa guztiak edo gehienak euskaraz egin nahi dituztenak	9	23	50
5. Euskara Euskal Herriko hizkuntza nagusitzat nahi dutenak	26	44	53
6. Euskara 1. hautuan	17	23	43

Iparraldeko emaitzak dira bitxienak. Euskararen ezagutza, maitasuna eta hautapena ahulak dira beste lurraldeei konparatuz. Gaztetxoek ustez ikasteko eta lan egiteko frantsesa da beharrezkoena. Baina halere, %26k euskara Euskal Herriko hizkuntza nagusitzat ikusten dute.

Galde puntu hau hor dago beraz : "Euskara zertarako" ?

Koherentzia gehiago agertzen da hegoaldean. Gutxi gora behera euskara dakitenen kopurua konparagarria da euskaraz ikasi nahi dutenekin eta lehen hautuan hartzen dutenekin. Halere, Nafarroan euskararen maitasuna eta herri hizkuntzaren nagusitasun nahia, ezagutza baino handiagoa da. Alderantziz E.A.E.n. Hemen euskararen irudikapena pragmatikoago da, beste bi lurraldeetan afektiboago...

6. EUSKARARI BURUZKO JARRERAK

Hemen aztertzen ditugu gaztetxoek euskarari buruz dituzten sentimendu baikorrak edo ezkorrak. Psikologian ikasten da jarrerak gure barneko indar batzu direla, iritzi moldean adieraz daitezkenak, eta noizbait jokabide bilaka daitezke. Egia da jarrerak ondoriorik gabe egon daitezkeela baina edozein jokabidek araberrako jarrera badu iturburuan. Zeren eta euskarari buruzko jokabideen oinarrian motibazio ezberdinak baitaude.

Metodologia (209)

Jarrerak barneko sentimenduak baitira, oso zailak dira biltzeko eta aztertzeko. Alabaina, baloreen eremuan gaudelakotz, galdera hetsiek defentsa mekanismoak sortarazten dituzte, erantzunen zintzotasunari kalte eginez. Hortakotz, galdera irekiak erabili dira, gaztetxoek beren pentsamoldea askatasun handiengan adieraz dezaten. Galdera hauek egin dira :

“Zuhaurek nolako interesa duzu euskararentzat ? Handia, aski handia, artekoa, tipia, batere ez ?

Galdera honetan eman duzun erantzuna argitzeko, gogoratzen zaizkitzun guztiak idatz ondoko lerro hauetan”.

Idatz ezazu lerro hauetan, ondoko galdera hauen inguruan bururatzen zaizun guztia : *“Euskara zertarako ? Frantsesa zertarako ?”*

Idazkien bidez erantzuleak nahi duena nahi duen moldean adierazi du : alde batetik, euskarari buruz duen interesaz eta, bestalde, euskarari emaiten dion balioaz.

Erantzunak bildu ondoren, idazki azterketa egin da, hitzen maiztasuna neurtuz, aipatu diren gaiak zerrendatuz eta agertu diren jarrerak sailkatuz.

Idazlanetan aipatzen diren gaiak (210)

Maizenik agertu diren gai nagusiak hauek dira :

- Euskararen erabilgarritasuna laneko, ikasteko : % 19 ;
- Euskara beharrezko hizkuntza : % 19 ;
- Euskara Euskal Herriari loturik : % 15 ;
- Euskara komunikaziorako : % 11 ;
- Euskara gure nortasun hizkuntza : % 9 ;
- Euskara eta beste hizkuntzak : % 7.
- Beste ezaugarriak : ikasi beharra, zaila, zaharra, aspergarria: % 16.

“Etorbizuna Aurreikusten 99” erreferentzia liburuak sailkapen hau erabiltzen du gaztetxoen aipamenak aurkezteko ordena logiko batean. Irakurketa interesgarri bat bada egiteko, hiru hizkuntzetan (213. orrialdetik 233. orrialdera).

Laburpen honetan eta sail guztiak kondutan hartuz, bereizi ditugu Euskal Herri osoan maizenik agertu diren 11 esaldiak eta zerrendatu maiztasunaren arabera.

Hona hurrengo taulan esaldi erabilieneen zerrenda.

2.1 taula : Euskarari buruzko jarrerak, lurraldeka

	Iparraldea %	Nafarroa %	E.A.E. %
1. Euskara hizkuntza baliosa, garrantzitsua	8	14	13
2. Euskara lana aurkitzeko baliagarria	4	8	13
3. Euskara komunikaziorako baliagarria	9	8	7
4. Euskal Herrian beharrezko hizkuntza	6	7	10
5. Euskara gure hizkuntza	5	6	6
6. Erdara euskara baino garrantzitsuagoa	2	9	5
7. Euskara ikastea zaila	2	6	6
8. Euskara ikas, beste hizkuntza bat jakiteko	0	6	4
9. Euskara ikasketetarako baliagarria	2	4	4
10. Hizkuntza zaharra zaindu behar dena	5	3	4
11. Euskara Euskal Herriaren oinarria	6	2	3
12. Eta abar

Euskal Herri osoan maiztasun handirekin agertzen den jarrera da, euskara hizkuntza baliosa eta garrantzitsuen aldekoa. Beste jarreretan ezberdintasun handia ikus daiteke iparraldearen eta hegoaldearen artean.

Iparraldeko jarrera aipatuenak zenbaki absolutuekin erakusten ditugu hemen, orroitaraziz erantzuleen kopurua 528koa dela. Euskararen komunikaziorako baliagarritasuna (45) eta hizkuntza honen garrantzi orokorra (40) dira gehienik aipatuak. Gainera, badira hizkuntza herriari lotzen dutenak, erranez Euskal Herriaren oinarria dela (35) eta herriarentzat beharrezkoa (32). Bestalde, euskara onartua da nortasun hizkuntza bezala (27) eta tradizio errespetagarritzat (27). Herri hizkuntzak zerbait balio badu lan bat aurkitzeko (23), gaztetxo gutik ematen dio ikasketak egiteko baliagarritasuna (8).

Nafarroan erantzuleen kopurua 940koa da eta hona jarrera aipatuenak zenbaki absolutotan. Herrialde honetan Iparraldean baino indar handiagoz adierazten dute hizkuntza honen garrantzia (134). Askok erraiten dute euskara Euskal Herrian beharrezkoa dela (63), adibidez komunikatzeko (79) eta lana aurkitzeko (75). Baina gehiago dira herri hizkuntzaren balioa zalantzan ezartzen dutenak (86) gaztelaniari konparatuz.

E.A.E.n erantzuleak 1678 dira eta hona zer adierazten duten maizenik, zenbaki absolutuetan. Euskararen garrantzia eta lanerako balioa aipatzen dutenak nagusitzen dira indar berdinez (213, 221). Bigarren lekuan daude euskara Euskal Herrian beharrezkoa dela erraiten dutenak (173), hain zuzen euskara komunikazioaren (115) eta nortasunaren (98) hizkuntza baita.

Nortasun jarrerak eta onura jarrerak (249)

Jarreraren azterketa sakontzeko xedearekin, ikerleek sailkapen bat proposatzen digute :

- jarrera izanarazleak edo nortasun jarrerak, frantsesez "attitudes identitaires" ;
- jarrera trukeordainekoak edo onura jarrerak, frantsesez "attitudes utilitaires".

Tipologia hau hizkuntza jarrerari aplikatuz, bi sail bereizi ditugu :

Gaztetxoek nortasun jarrerak adierazten dituzte euskara nortasun kolektiboaren hizkuntza bezala aipatzen dutelarik : "gure hizkuntza", herriaren hizkuntza, tradizio ohoragarria, orokorki garrantzizkoa.

Aldiz onura jarrerak adierazten dituzte euskararen baliagarritasun pragmatikoa aipatzen dutelarik : lana aurkitzeko, ikasketak egiteko, ikasi behar den hizkuntza.

Orain arte jarrera baikorrak sailkatu ditugu. Badira ere jarrera ezkorrak, euskarari balioa ukatzen diotenak mugatua delakotz, zaila eta aspergarria, beste hizkuntzak maiteago baitituzte. Sailkapen hauek egin ondoren hona zein banaketa agertzen den lurraldeka.

4.2 taula : Idazkietan adierazi diren jarrerak, lurraldeka

	Iparraldea %	Nafarroa %	E.A.E. %
1. Nortasun jarrerak "j. izanarazleak"	20	11	16
2. Onura jarrerak "trukeordaineko j."	15	27	28
3. Baliorik eza	7	21	13
4. Bestelako jarrerak	15	28	31
5. Erantzunik ez	43	13	12
OROTARA	100	100	100

Ohargarri da iparraldean hegoaldean baino askoz nortasun jarrera gehiago aipatzen dela. Onura jarrerak ahulak dira, ez baitute beren inguruan ikusten euskaren baliagarritasuna, ez lanean (salbu laborantzan), ez eta ere goi mailako ikasketetan. Halere, ez dute adierazten euskararen balio falta, hain segur herri hizkuntza garrantzitsua baitzaie elkarrekin "euskaldun" izaiteko. Baina ohargarri da aintzek ez dutela erantzunik eman : dudan edo axolagabeak direlakotz.

Hegoaldean alderantzizko jarrerak agertzen dira. Nortasun jarrerak ez dira hain indartsuak. Halere gaztetxoek euskarari emaiten diote balio pragmatiko handia lan egiteko, komunikatzeko, ikasteko. Hizkuntza hau bizitzan ongi heltzeko beharrezkoa da, nahitez ikasi beharra. Eta denbora berean, eta bereziki Nafarroan, asko dira euskararen balio eza aipatzen dutenak bai eta ere hizkuntza honen ezaugarri ezkorrak : zaharra, aspergarria. Hemen nabari da onura jarreraren ahulezia : hizkuntza baliagarri den heinean erabiltzen da, ez gehiago.

Dena dela, hizkuntza jarreraren eta erabileraren arteko bidea ez da beti zuzena. Hor daude gizarte baldintzak, barneko motibazio ederrak oztopatzen dituztenak edo motibazio ahulak akulatzen, beharraren arabera.

Ikus dezagun orai zer ondorio atera dezakegun ikerketa honetarik...

ONDORIOAK

Inkestaren aurkezpena bururatzean, ohar pedagogiko batzu eginen ditugu, ikusteko soziolinguistika azterketa hau balia genezakeen gure herri hizkuntza biziberritzeko. Joshua Fishmanen "Reversing Language Shift" teoria (RLS edo euskaraz "hizkuntza berreskuratze bihurgunea") erizpidetzat hartuz, aztertuko dugu non dauden euskalgintzaren indarguneak eta ahuleziak. Hortarako, gizartearen eta hizkuntzaren arteko loturak definitu beharko ditugu, agian aterabide baliagarriak aurkitzeko.

Euskararen berreskurapena Fishmanen kontzeptutik begiratzuz (279)

Gaztetxoan ahotik jakin dugunaz, Euskal Herriko lurraldeetan euskara egoera ezberdinean dago. Iparraldean beherakada gelditu bada ere, gorakada ez da oraindik abiatua. Nafarroan berreskurapena bidean da, eta E.A.E.n euskararen ezagutza aurrera doa, erabilera oztopoak baldin badira ere.

Euskararen geroaz erantzun aberatsago bat aurkitzeko, lagungarri liteke ezaguna den J. Fishmanen RLS kontzeptua erabiltzea. Teoria hau pentsamolde baliagarri bat da larritasunean dagoen hizkuntza bat biziberritzeko, euskararen aldeko estrategia orokor bat (hizkuntza politika barne) eta ere gizarte zibilaren gain diren ekintzak antolatuz. Oinarritzeko ideia da hizkuntza baten berreskuratze urraspidea gainbeherako bidearen alderantzizkoa dela. Hizkuntza egoera asko aztertu ondoren, hegoaldekoa adibidez, soziolinguistikatzailen famatuak eta bere jarraitzaileak (heien artean R. Bourhis eta Txepetx) 8 urrats definitu dituzte.

1. corpusaren apaindura,
2. hiztun helduen partehartzea kulturgintzan,
3. familiako transmisioa, mintzakidegoa indartzeko,
4. nahizko hizkuntz ikaskuntza gazteen eta jende helduenganik,
5. irakaskuntza aginduzko eskola sarean,
6. hizkuntzaren erabilera gizarte hurbilean (lanean, zerbitzu publikoetan),
7. hizkuntzaren erabilera komunikabideetan eta tokiko administrazioan,
8. onarpen ofiziala unibertsitateen eta gobernuarengatik.

Urraspide honen helburua da oreka batetara heltzea, herri hizkuntzaren eta hizkuntza menperatzaileen artean. Lehen lau urratsetan ahul dagoen hizkuntza indarberritzen da, baina hizkuntza borrokak jarraitzen du. Bosgarren urratsetik aitzina, herri hizkuntza bere leku guztia hartzen ari da gizartearen, autonomia kulturala ardiesterrainokoa. J. Fishmanek hizkuntza oreka hau "diglosia funtzionala" deitzen du, Fergusonen ondotik. Guretzat "elebitasuna" hitzak konotazio baikorragoa dauka. Dena dela, gure kasuan ikus dezagun gaztetxoan inkestak asmatzera ematen digun urraspidea.

1. Corpusaren balorazioaz hor daukagu Euskaltzaindiaren lana, bereziki euskara batuari buruz bai eta ere euskalkiak zaintzeko. Euskal irakaskuntza zabalduago eta euskara batua erabiliago da, bereziki ama-hizkuntza erdara duten haurretan. Hegoaldean euskara batua ezagutuago da, iparraldean beren euskalkiei atxikiak direlarik.

2. Kulturgintzaz erran dezakeguna da lurralde guztietan, baina bereziki iparraldean gaztetxoek euskara kulturari eta herri nortasunari lotzen dutela.

3. Hizkuntza komunitatea edo mintzakidegoa familiako transmisioak baldintzatzen du. Euskararen jarraipena iparraldean ahulago da, baina familiako erabilera eta transmititzeko xedea hegoaldean baino kartsuago. Bestalde, gazteen arteko "kuadrilek" arrakasta gehiago dute hegoaldean, batzuetan euskararen onerako.

4. Nahizko ikaskuntzaren bidez, gazteak eta jende helduak herri hizkuntzaz jabetzen dira. Urrats honetan kokatzen dira gau eskoletako eta euskaltegiak euskalduntze programak, besteak beste H.A.B.E.renak E.A.E.n, eta A.E.K.renak Euskal Herri osoan.

5. Aginduzko eskola sarean eskaintzen den euskal ikaskuntza zabalduago da E.A.E.n eta Nafarroan. Horregatik 10 urtez, euskaldungoa bikoiztu da 15-25 urteko gazteetan, hau baita soziolinguistika gertakizun miresgarri bat. Iparraldean doi-doi ama eskolako eta lehen mailako ikasleen % 25ek euskara ikasten dute, pedagogi eredu batean edo bestean.

6. Beste hiru urratsak, gizarte elebiduna, komunikabide euskalduna eta euskararen onarpena, hegoaldean legezko ofizialtasunaren bidez aurrera doaz : abiadura handian E.A.E.n eta bat-bateko oztopo batzuekin Nafarroan. Iparraldean herri hizkuntzak ez dauka ofizialtasunik eta aurrerapena herritarren militantziaren gain dago. Halere, publikotasun zerbait bada hezkuntza ministerioaren aldetik eta hedabideetan. Ez da aski eta gaur egun antolatzen ari den "euskalgintza hitzartua" beharrezko urrats bat da.

Soziolinguistika gogoeta egituratu hau erabili da hizkuntza egitarau batzuen definitzeko, hala nola "Euskara biziberritzeko plan orokorra" eta Kontseiluak deraman "Bai euskarari" estrategia. Kasu guztietan, Quebecen, Katalunian ala Euskal Herrian, hizkuntza antolaketa ongi heltzen da gizartearen eskaerari lotua delarik erakundeen eskaintza.

Euskal hiztunen komunitatea (282)

J. Fishmanen teoriak garrantzi handia emaiten dio hiztunen kidegoari. Alabaina, euskararen egoera definitzerakoan, euskara dakitenen kopurua kontuan hartzen da. Ez da berdin gaztetxoek % 9 euskaldun izaita Iparraldean, edo % 20 Nafarroan edo % 62 E.A.E.n. Baina hizkuntza baten osasunaren baldintza nagusia da harremanen trinkotasuna.

Haustura bat agertzen da gaitasunaren eta erabileraren artean. Euskara dakitenen kopurua askoz handiago da erabiltzen dutenei konparatuz. Bestalde, familiak baldintzatzen du, neurri handi batean, hizkuntza-kanpoko egoera, adibidez eskola hautatuz. Gainera, gaztetxoek kanpoan errepikatzen dituzte familian deramatzaten hizkuntza jokabideak. Neska-mutil berak dira familian, ikastetxean eta lagunartean euskara erabiltzen dutenak. Eta beste muturrean neska-mutil berak dira 3 gune hauetan erdaraz ari direnak.

Gaztetxoek zati txiki bat da euskaldunen kidego trinko batean bizi dena : % 20 nonbait han. Gaztetxoek erdiak euskara nagusiki erabiltzen den sare batean badabilta. Azkenik, gaztetxoek heren bat kokatzen da harreman euskaldunik ez den sareetan. Euskaldun barreiatu hauek euskarak duen ahultasunaren lekuko dira.

4.2 irudia : hiztun komunitatearen zutabeak

Gogoan izan behar dugu hizkuntza bizi batek bere erroak sartu behar dituela hiru gunetan :

- pertsonen baitan (hizkuntzari buruzko gaitasunak eta motibazioak)
- gizarte egituretan (erakundeen funtzionamenduko)
- gizarte barneko harremanetan. (hiztunen arteko harreman sareak)



Hiru maila horietan sustraitzen da hiztunen komunitatea, beraz, euskal mintzakidegoa ere bai.

Harremanak euskaraz egiteko lehen baldintzak dira euskara jakitea eta erabiltzeko motibazioa. Baina, denbora berean, beharrezkoa da gaztetxoek ingurunea ere euskaldun izan dadin, familian, ikastetxean, aizinaldietako ekintza taldeetan, bilguneetan, gaztetxoak ibiltzen diren lekuetan. Ahalaz, euskara hizkuntza nagusia izan dadin, erdararen parekoa gutienez. Bestenaz, gaitasuna eta motibazioa ukanikan ere, ingurune faltaz euskara ez dute erabiliko. Kasu honetan, euskararen erabilgarritasunaren itxura histen da. Jakinikan ere, ezin bada erabili, ez du baliorik.

Euskal Herriko eta bereziki Iparraldeko gizarte egitura gehienak erdaldunak dira. Eredu euskaldunetan dabilzan ikasleek ere maiz erdaraz egiten dituzte kirol ekintzak adibidez. Euskaldun berriak formatu ondoren, erdal komunitatean dute beren harreman sarea. Hezkuntza sistema beharrezkoa da euskal gaitasuna zabalteko ; normalizazioaren lehen urratsa da. Baina, denbora berean, ingurunea ere euskaldundu behar da erabilera sustatzeko. Familian eta ikastetxean oinarritua den hizkuntza gaitasunak bere fruituak emanen ditu gizarte erabileran.

Euskalgintzaren bizinahia (285)

Hizkuntzalari batzuek neurtzen dute hizkuntzen bizi indar etnologikoa, kontuan hartuz, alde batetik, aldagai objektiboak (hiztunen kopurua, gizartearen hizkuntza egoera, mintzaidegoa), eta, bestalde, aldagai subjektiboak, hala nola hiztunek erakusten duten atxikimendua berena den hizkuntzari. Euskal Herrian nabari da gure hizkuntzaren bizi indarra baino handiagoa dela bizi nahia. Behar dugun baino askoz gehiago euskara nahi dugu. Etorkizunari begira aldagai hau biziki eraginkor daiteke.

Gaztetxoenganik bildu ditugun euskararen inguruko iritziek gustu gazi-gozo bat uzten badigute ere, euskaldun izateko duten nahiak itxaropena pizten digu eta lanerako gogo. Pentsa dezagun, gure hizkuntzaren ezaugarri nagusi bat dela bizirik irauteko kemena, hain zuzen mendeetan zehar eta bere historia luzean aurkako haizeei oldartzeko erabili duena. *"Gizarte ingurunearen baldintza objektiboetaz gain, bizi nahi subjektibo horretan ere sustraitzen da hizkuntza baten bizi indarra"*.

Geroari buruz euskararen garapena segurtatuko duten hiru faktore nagusiak dira : herriaren aldeko atxikimendua, familiako transmisioa eta hizkuntza politika. Iparraldean politikaren ahulezia ageri da. Halere, ikusiz gaztetxoek gogo ona herriaren eta herri hizkuntzaren alde, itxaropena ez da utopikoa. Gaurko gazteen hizkuntza identitateak aurreikustera ematen dizkigu geroko gizartearen nahia euskararen alde.

BIBLIOGRAFIA

- Alvarez Enperantza, Jose Luis "Txillardegi" (1992), *Hizkuntzaren berreskurapena Fishmanen arabera*, Bat, soziolinguistika aldizkaria 6. zk., Donostia.
- Ariztondo, Josune (1998), *Euskal Herriko soziolinguistikazko inkesta, 1996, Euskararen jarraipena II*. Eusko Jaurlaritza, Nafarroako Gobernua, Euskal Kultur Erakundea.
- Azurmendi, Maria José (1999), *Psicosociolingüística*. Euskal Herriko Unibertsitatea, Bilbo.
- Erize Xabier (1997), *Nafarroako euskararen historia soziolinguistikoa, 1863 - 1936*. Nafarroako Gobernua, Iruña.
- Fishman, Joshua (1991), *Reversing language shift; Multilingual Matters*, Clevedon.
- Martinez de Luna, Iñaki eta besteak (2000), *Etorkizuna aurreikusten 99 : Euskal Herriko gaztetxoak eta euskara*. Euskal Herriko Unibertsitatea, Nafarroako Unibertsitate Publikoa, Euskal Kultur Erakundea.
- Sanchez Carrion, Jose-Maria, "Txepetx (1991), *Un futuro para nuestro pasado*. Elkar, Donostia.

ETORKIZUNA AURREIKUSTEN 99 :

“Euskal Herriko Gaztetxoak eta Euskara”

Iparaldeko egoera

Euskal Kultur Erakundearen argitalpena
- 2001ko Ekaina -

1999ko inkesta soziolinguistiko baten arabera.
Inkesta hau Akitania-Euskadi fondoak lagundu du.

Argazkiak : Aintzinean Xalbador Ikastegiko gaztetxoakak (Kanbo).
Erdian, eskuin, Ravel kolegioko talde elebidun bat (Donibane-Lohizune).
Gainen, ezker, Bil Etxea kolegioko ikasleak (Baigorri).